

AUTOEBALUAZIOA

Erizaintza Klinikoa I

I.gaien atala. Ebaketarako erizaintza

1. Aukeratu erantzun okerra kirurgiaren arrisku faktoreei dagokienez:

- a. Haur oso gazte eta adinekoek arriskurik handiena dute
- b. Malnutrizioa arrisku faktore bat da
- c. Diabetesa arrisku faktore bat da
- d. Pazienteak hartutako medikazioa ez da arrisku faktore garrantzitsu bat

2. Kirofanoan, nor da eremu esteriletik kanpo egiten diren tekniken arduraduna eta material esterila instrumentatzeko mahaira botatzen duena?

- a. Erizain instrumentista
- b. Zirujaua
- c. Erizain zirkulatzaila
- d. Anestesiako erizaina

II.gaien atala. Arnasbideko gaixotasunak eta gaixotasun pleuropulmonarrak

3. Biriketako gaixotasun kronikoa duten gaixoei oxigenoaren kontzentrazio altuak ipini behar dizkiegu?

- a. Bai, beti
- b. Bai, baina hori egin baino lehen gasometria bat atera behar diegu
- c. Ez, arnasketarako duten estimulu bakarra hipoxemia delako
- d. Gaixo hauek ez dute oxigenorik behar

4. Zein ez da arrisku faktore bat biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa (BGBK) izateko?

- a. Sedentarismoa
- b. Tabakoa
- c. Airearen poluzioa
- d. Ikatz-meategietan lan egitea

III.gaien atala. Gaixotasun kardiobaskularrak eta erizaintzako zainketak

5. Aukeratu erantzun okerra elektrokardiograman elektrodoen kokapenari dagokionez:

- a. Ezkerreko besoan, elektrodo periferiko horia
- b. Eskuineko besoan, elektrodo periferiko beltza
- c. V1: 4.saihetsezur-tartean bularrezurraren eskuinera
- d. V2: 4.saihetsezur-tartean bularrezurraren ezkerrean

6. Zein ez da eskumaldeko bihotz gutxiegitasunaren zeinu edo sintoma bat?

- a. Birikietako auskultazioan: krepitazio bilateralak
- b. Pletora yugularra
- c. Gibeledako kongestioa
- d. Edema periferikoa

IV. gaien atala. Praktika klinikoetara egokitutako dietetika.

7. Pazienteari buru eta lepoko kirurgia egin diote. Aukeratu erantzun okerra ahozko elikadurarekin hasteko protokoloari dagokionez:

- a. Elikagai bigun eta hezeak eman
- b. Otordu ugari eta bolumen txikiak eman
- c. Sustantzia narritagarriak kendu (kafea, tea, zitrikoak ...)
- d. Esnekiak gehitu

8. Zeintzuk dira hiperurizemian eta gotan debekatuta dauden elikagaiak?

- a. Erraiak
- b. Gantzetan aberatsak diren arrainak
- c. Itsaskiak
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

ERANTZUNAK

1.d

2.c

3.c

4.a

5.b

6.a

7.d

8.d